


Agustin Aranberri, herrigintzan eredu

Ermuko eta hemendik kanporako gauza askoren sorrerarekin dago bere izena lotua. Euskara batuaren 40. urteurrenak, bere ekarpena eguneratu eta birgogoratu dizkigu.

Mutrikun jaio zen 1929an ekainaren 3an. Urte batzuk Bergaran bizi izan ostean, ama eta arrebarekin Ermuko San Antonio-ra etorri zen. Bere garaiko asko bezala, Eskola Armerian ikasitakoekin tailerra ipini zuen; Berrizen paratu zen lehenengo sozio batzuekin eta Ermuan gero. 'Malengoneko' errotako alaba zen Pilar Bilbaorekin ezkondu-ta, euren etxe azpian eta baita San Antonio-ko ermitan untzioletarako osagarriak egiteari ekin zion. Ugazaba zen, baina langileekin batera aritzen zen, ekoizpenean bat gehiago zelarik.

Pertsona aktiboa eta militantea, idatzizko dokumentazioaren bitartez jakin dugu herriko hainbat ekimen eta lantalde bultzatu zituela, haien sorrera taldeetan bere izenaren aipamena jasota datorrelarik: Anaitasuna Ikastola, Ermua Club Deportiboa, Eroskiren herri-kooperatiba, Ermuko Odol-emaileak... Honetaz gain, hiru urtez Gerediaga

Elkarteko Ermuko ordezkaria izan zen, Elkarte honen aldizkarian kolaboratzaile eta EAJ-PNVko Ermuko udal batzarkidea. 1979an, demokrazia garaiko lehen hauteskundeetan, Bizkaiko Batzar Orokorretarako Durangaldeko batzarkide bezala izan zen aukeratua. Koldo semeak ondoko hausnarketa egin digu aitaren lanaren gainean: *"Garai haietan dena egin gabe zegoen, ez zegoen ezer antolatua eta benetako iniziativa zeukanak, lana soberan zeukan. Hezkuntzan, kulturaren... Azken finean, herrigintzan. Gure aitak bi ildotik jo zuen: abertzaletasuna eta euskara zein euskal kultura. Horregatik Ikastola, Gerediaga, PNVA... Ildo horrekin, Odol-emaileak eta Club Deportiboak lotura zuzena duenik eman ez arren, herriaren onerako musu-trukeko lan egite zabal horren adibide dira"*. Zaletasunen artean, arrantzeta eta mendia zituen arreren; bai bata zein bestea bere familiarekin konpartitzen zituen eta aitaren arrimura emandako egun-



pasak ondo akorduan dituzte Koldo eta Irune seme-alabak. Ezagutu zutenek plazagizon adeitsu bezala gogoratzen dute, on-hutsa eta popularra benetan. Jende askori lagundutakoa eta jende askok estimua zeukana, emateko prest beti. Gerra osteko lehen 'Euskal Idazleen Biltzarra' historiko hura Ermuan egitea proposatu zenean, antolaketa lanetan buru-belarri ibili zen.

Ermuan hil zen 1986ko apirilaren 2an, bihotzekoak emanda. Bera bezalako ehunka aitzindari esker ditugu gaur egun talde eta erakunde asko eta asko; jakin barik gerora onerako bidea jarraituko zuten ala ez, sinesten zuen gauza horien alde euren dirua eta denbora inbertitzen dutenen gizaseme talde horren barruan dago. Doala hemendik gure errekonozimendua eta eskerrona!

Estibalitz González

TXALAPARTA
ABERNA

ASTEBURVETAN
BOKALAK, PINTXOAK
ETA AFARIK

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

DO
MOUTH